

ZER DA ELKARTOKI?

Sorkuntza eta diseinu tailerren bitartez ikasleek eskolako patioaren espazioan eta erabileran eragiteko lanak, artefaktuak eta esku-hartzeak asmatu eta eraikitzeo programa da. Elkarbizitza eta balio bameratzaileak lantzeko nahia duten sorkuntza artistikoak zein arkitektonikoak imajinatu eta eraikitzea bilatzen du. Hala ere, espazioaren sorkuntzarako proiektua izateaz gain, Elkartoki prozesu pedagogiko eta parte hartzailea ere bada: ikasleek elkarlanean espazioa arakatu eta ulertu honen hobekuntzarako ideiak proposatu eta diseinatu, eta bukaeran, proposamen zehatzak adostu eta auzolanean eraikitzen dituzte.

Prozesu honetan zehar artea izaten dugu lagungari, honek egiteko eta begiratzeko modu ezberdinak ezagutu eta prozesuaren garapena aberasten ahalbidetzen duelako, baita eskolako eremuaz kanpo dauden metodologiekin egiteko aukera ematen digulako ere.

Elkartoki hurrengo ardatzetan oinarritzen da:

- 1 Genero berdintasuna**
Espazioaren diseinuak gizarteak ezarritako genero rola lausotu ditzake, genero berdintasuna indartuz.
- 2 Kolektibitatea**
Proiektuko agente guztiek daukagu proiektuarekiko ardura eta erantzunkizuna.
- 3 Esperimentazioa**
Helburuetara heltzeko bide berriak frogatuz, irudikatzen ez diren emaitzak lortu daitezke.
- 4 Parte-hartzea**
Haurrak parte-hartze prozesuaren erdigunean kokatzen dira: erabakitzea, aztertzea, sortzea, esku hartzea...

Azken lau urteetan, proiektua martxan jarri zenetik, bederatzik eskoletan garatu izan da, eta hauetan 20 artista inguruk eta 1500 pertsona inguruk parte hartu dute.

ELKARTOKI

ZERGATIK PATIOA?

Eskolako patioa ume askok bizi eta esperimendatzen duten lehendabiziko espazio publikoa da. Toki hauen diseinu eta ezaugarri fisikoak eta hauen kudeaketa ereduak umeen jokoan eta jarreretan eragin handia duten mezuak eta ikasketak transmititzen dituzte. Askotan eskolako patioak ez dira behar bezala diseinatu eta pentsatu. Espazio hauen garrantzia handia den arren, gune gogorak eta estandarizatuak izaten dira, umeen eta eskolako komunitatearen desioak eta beharrak islatzetik urrun daudenak. Honek gatazka eta problematika zehatzak ekartzen ditu maiz: jolas eta erabilera batzuek besteek baino garrantzi gehiago hartzen dute eta espazioaren erabileran eta okupazioan berdintasunik eza eragiten dute. Ondorioz, ez dira aniztasunarekiko errespetuan eta berdintasunean oinarritutako kalitatezko harremanak eta esperientziak bultzatzen.

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

J Espazio eta dinamikak ezagutu, igarri eta enpatizatu.
a Patioaren inguruko beharrak eta desioak identifikatzen dira.
b Horretarako, dinamika ezberdinen bidez eskolako patioak sortzen dituen jarrera eta sentimenduak behatu, ulertu eta hauen inguruan hausnartzen da.

a Proposatu, sortu, irudikatu.
S Patioari begirako eszenatoki desiratuak asmatu eta berauek espazioan lekua hartuko duten artefaktu edo interbentzio artistiko zein arkitektonikoetan islatzea da helburua.

e Prototipatu, testeatu, adostu.
r Artefaktuak eta artelanak espazioan eraiki eta eskola komunitate osoarekin espazio berriak martxan jartzea da helburua.
a
i
d
a
t
u

Hiru faseetan banatzen da programa: jabetu, asmatu eta eraldatu.

Eraldaketa fisikoa helburua izaten den arren, Elkartokin prozesuan jartzen dugu indarra, hortxe gauzatzen direlako aldaketa nabarmenenak ikusi eta pentsatzeko moduan.

Hala ere, programak ez ditu hiru faseak bete behar, eskolaren behar, denbora eta baliabideei moldatzen gara. Aurretik diagnosis eginda badago, beste faseetara pasu gaitzake zuzenean, edo batean bakarrik jarri nahi bada indarra, horretan geldituko gara. Proiektu bakoitza testuinguruari egokitu egiten da guztiz.

NOLA ABIATU ELKARTOKI?

3 Prozesua imajinatu

Hurrengo urratsa prozesua imajinatzea izango da. Urrats honetan adostu behar dena hurrengoa da:

- Nork parte hartuko du? Talde motore bat osatuko da? Eskola osoak hartuko du parte? Zelan bermatu gainontzeko ikasleen parte hartzea?
- Nola integratuko da proiektua eskolan? Zenbat ordu eskainiko zaizkio? Zelan txertatu curriculumaren barruan?
- Nola zabalduko diogu informazioa eskola komunitate osoari?
- Zeintzuk dira patioaren hausnarketa, diseinua eta eraldaketaren baitan asetu behar diren behar nagusiak? Zeintzuk dira gure itxaropenak? Eta mugak?

Proiektu parte-hartzailea izanik, eraldaketaren edukiak batez ere ikasleekin landuko dira prozesuan zehar. Espazioak dauzkan mugak eta limitazioak detektatzea ere funtsezkoa izango da.

Prozesua guzti honi arreta jarritz diseinatuko da: helburuak, egutegia, faseak eta hauen barruan burutuko diren ekintzak definituz eta agente bakoitzaren zereginak finkatuz.

1 Talde sustatzailea osatu

Hasteko, proiektua sustatzeaz arduratuko diren pertsonaz osatutako taldea sortu behar da. Hauen zeregin nagusia proiektuaren jarraipena egin, berau zabaldu eta martxan jartzeko beharrezko baliabideak bilatzea izango da.

2 Aliatuak bilatu

Proiektuan laguntzeko prest dauden pertsonak dira. Konpromiso maila ezberdina har dezakete: koordinazioan lagundu, ekintza zehatzetarako laguntza eskaini, baliabideak eskuratzen lagundu, etab. Eskola barruko talde guztiekin aliantzak sortu beharko dira: zuzendaritza taldea, irakasle eta tutoreak, begiraleak eta familiak. Honekin batera, eskolak martxan dituen gainontzeko proiektuekin uztartzeko aukerak aztertu beharko lirateke, esaterako, Agenda21, Hezkidetza, etab.

4 Baliabideak aurreikusi

Ostean, beharrezko baliabideak argitu beharko dira: pertsonak, denbora, materialak, jakintza espezi koa eta dirua. Epe luzearako prozesua nahi izanez gero, baliabideak handitzeko estrategiak beharko dira, horretarako, eskolaz kanpoko diru-laguntzak eta aliatuak bilatzeko aukera aztertu beharko litzateke.

5 Prozesua martxan jarri

Prozesuaren diseinua eta baliabideak zehaztu ondoren prozesua guztion artean aurrera eramatea baino ez da falta, erantzunkidetasunez eta imajinatutakoa ahalik eta gehien errespetatuz. Prozesua abiatzeko ilusioa pizteko eta eskola komunitate guztia informatzeko estrategiak beharko dira.

Zertan lagundu zaitzakegu?

TIPIn zerbitzuen diseinuan, elkar sorkuntzan, parte hartzean eta bitartekaritzan adituak gara eta mota honetako proiektuetan eskarmentu handia daukagu. Gainera, urteen poderioz Elkartoki programaren metodologia findu egin dugu. Hau dela eta, eskolaren beharren arabera lan ezberdinak egin ditzakegu:

- Irakaslego eta familiei formakuntza eman.
- Prozesua aktibatu, taldea osatzen lagundu, ekintza aktibatzaileen produkzioa, etab.
- Prozesuaren elkar-sorkuntza bideratu eta aholkularitza eskaini prozesuan zehar.
- Prozesuaren bitartekaritza arduratu, elkarlana sustatu eta espazioaren ko-diseinua bideratu, auzolana, eraikuntza parte-hartzailea eta eraldaketa orokorra kudeatu.
- Diseinu arkitektonikoa egin.
- Eskola eta beste erakundeen arteko zubi-lana egin.

Sakontzeko:

Elkartoki webgunea www.elkartoki.com

San Nikolas Ikastolako prozesuaren [dokumentala](#)

«Patioa denona da» [liburua](#)

Patioa denona da topaketaren [bideoa](#)